


Nafar **karria**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko apirilaren 22a / IV. urtea / 124. zenbakia

Metala, beira, oihalak, gurpilak... tailer batendako aproposak, birziklatzeko altxorak. Ez dirudite eskulturarako gaiak. Dora Salazarrendako, ordea, ez dago besterik. Horrek ematen dio inspirazioa, eta beste gaie-

Dora Salazar, ironiaren eskultura

kin ez dakiela lan egiten dio. 31 urteko altsasuar hau eskultore gazterik onenetakoa da, eta bere lanek harridura sortzen dute, ezinbestez. Ironia, kritika, pertsonalitatea, eskultura bitxia, zaila, seriotasun alaia.



Altsasuko bere tailerrean.

OSKAR MONTERO

Lur deslaia

PILI YOLDI



Larunbat gaueko sukarra

Kontatu didate Bartzelonako unibertsitate batean Iruñera etortzeko txango bereziak antolatzen dituela talde batek. Asteburuero, Nafarroako hiriburuak duen gaueko giroa dela eta, batez ere, alde zaharreko 'martxa' azpimarratzen omen du txikiei luzatutako paregabeko eskaintza honek.

Tabernak hemengo musika eroa dantzaten duen jendez gainezka egoten direla kasik egunsentirarte, mobida guztien berri ematen duten kartekez inguraturik eta European porroak lasai erre daitezkeen toki bakarrenetakoa dela diote.

Pare bat egunetako egitaraua fijo bada ere, alde aurretik prestatu ezin den sorpresa iragartzen bide dute antolatzaileek: zoriona bidaiaren ondoan bada, manifestaren bat ikus daiteke kaelan, bere istiluak eta guzti, baita polizia eta gazte abertzaleen arteko borrokaren bat zuzen-zuzenean ere, dena eskaintza berbera eta prezio berean.

Pasa den larunbatean, oso zorte ona izan zuten txangolariak, Iruñeak saio berezia eskaini baitzien: iragarri gabe eta Jaime Iribarreni hirugarren aldiz egindakoari esker, Iruñeko alde zaharreko kaleak pilpilean ziren. Goizeko hirurak aldeira, poliziak tiroka poteoan zebiltzan koadrilen artean, ke-poteak tabernetako atarietan, anbulantziak agure intoxikatuak eramaten eta lau ordu lehenagoko su barrikaden arrastorik ez. Bete aldean, gazte gehienek bere mozkorraldiak aurrera eramanez eta, naturalitate osoz, karreratxo bat egiten hurrengo tabernaraino (berandu arte geldi gaitzekkeen egun bakarra ez digute istilu arruntek izorratu behar).

Agian, aurreko asteburuan Iruñera etorri ziren katalanek ez zuten oso ongi ulertu onak edo gaiztoak zeintzuk ziren, ordu horietan txoko guztietan zegoen poliziari inork ez baitzion aurre egiten. Akaso turistentzako espreski egina al zen espektakulua? Datorren larunbatean galdetu behar.

GURE AUKERAK

MINTZALDIAK

Koldo Izagirre Pasaiako idazleak 'Euskal zinemari buruzko ikuspegi subjektiboa' azken lanari buruz hitz eginen du heldu den ostegunean, apirilak 28, Zaldiko Maldiko Elkartearen Arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

Alzheimer izeneko gaixotasunari buruzko mintzaldia eskainiko du heldu den ostegunean, apirilak 28, Jose Ramon Goñik —gaitz hau duten sendien elkar-tekoak— Altsasun. Arratsaldeko 18.00etan hasiko da, herriko Lankide Aurrezkiaren kultur aretoan.

Elkarri mugimenduak bere aurkezpena eginen du gaur, apirilak 22, Malerrekan, arratsaldeko 20.00etatik aurrera. Doneztebe-ko zinean izanen da, eta bertan Bittor Aierdi taldekidea mintzatu-ko da.

BERTSO SAIOAK

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Unai Iturriaga, Manolo Arozena, Xabier Silveira eta Iratxe Ibarra bertsolarien saioa izanen da igande honetan, apirilak 24, Berako Eztegar pilotalekuan. Nafarroa Oinez 94k antolatuta, arratsaldeko 18.00etan hasiko da. Sarrerak 700 pezetan salduko dira bertan, eta aurretik erosiz gero 600ean.

Bittor Elizagoien, Manolo Arozena eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak hartuko dute parte Zaldiko Maldiko Elkar-teak apirilaren 30erako prestatu duen bertso bazkarian. Eguediko 14.00etan hasiko da eta bertara joan nahi dutenek Elkartearen bertan edo Xalbador liburudendan erosi behar dituzte txartelak.

Bittor Elizagoien eta Estitxu Arozena bertsolariak kantatuko dute gaur ostirala, gaueko hamarretan, Burlatako Axular Elkartearen. Prezioa: 1.500 pezeta.

ZINEMA

'Ke arteko egunak' izeneko filmea botako dute gaur, apirilak 22, Etxarri-Aranazko Aralar zinean, gaueko 22.00etatik aurrera. Igandean, berriz, haurrentzako 'Polizon de Ulises' pelikula eskainiko dute, arratsaldez.

BESTELAKOAK

Amaiur Ikastolako 5. mailako neska-mutilek '9.00etan Amaiurkoekin' izeneko irrat-saioa eskainiko dute bihar larunbata, hilak 23, Euskalerrira Irratian.

NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE

Agintariak ez dute koadrilarik

Harro egon gaitezke: Luis Roldanek ez zituen Madrilen ikasi aberaste azkarraren sekretuak. Nafarroan Espainiako Gobernuaren ordezkari zela egin zituen ikastaro trinkoa eta zegozkion praktikak, eta Goardia Zibileko buru izendatu zuteneko ongi trebatua zegoen.

Ez pentsa, ordea, bere borondatez sartu zenik etekin errazen saltsan. Jorge Esparza ezagutu zuten eta, alderdikideei zor zaien leialtasunaz, Gabriel Urralbururekin eta Antonio Aragonekin harremanetan jarri zuen Huarte enpresako administratzailea. Huarteko enpresariak izugarritzako sena zuten aukera onak usaintzeko eta, horrela, bina txalet saldu zizkien hiru agintari sozialistei. Aldi berean, garai hartan PSOÈren eskuetan zegoen Nafarroako Gobernuak 5.500 milioi pezetaren adjudikazioak eman zizkion Huarte enpresari, baina honek ez du ezer esan nahi. Ez behintzat gure agintarien

zuzentasunaz fido garenontzat.

Sakoneko arazoa ez baita ustelkeriarena, politikarien bakardadearena baizik.

Menorcan txalet bat erosi nahi zuen, besterik gabe, eta ez zekin horretarako Rotan beste bi erosi behar zirela.



Agintariak ez dute koadrilarik. Beraz, ez da beraien errua negozio pribatuak egiterakoan beraien jardun publikoan ezagututako enpresarien aholkuak behar izatea. Ez dute beste aukerarik, bakardadeak bultzatzen ditu adiskide arriskutsuengana. Galdetu bestela Olivia Baldari: Gabriel Urralbururen emazteak elkarte bat sortu nahi zuen eta, aita bihotzekoak jota zegoenez, Jorge Esparzarekin elkartu behar izan zuen, nonbait ez zeukalako beste lagunik. Gainera, berak ez zuen intentzio txar

Beste horrenbeste gertatu zitzaizen Roldani eta Aragoni. Zintzoak ziren, baina adiskiderik ez zuten Esparzaz fidatu ziren eta honek aberasteko parada eskaini zien. Haien kultura horretakoak ez izan arren, amua irentsi zuten eta begira nola bukatu duten: Goardia Zibileko zuzendari ohiak erabat kakaztua, Ebroko Hidrografi Konfederazioko buruak dimisioa aurkeztera behartuta eta PSN-PSOÈko idazkari nagusiak kolokan. Dena koadrilarik ez izateagatik, gizarajoak.

ASTEKO PERTSONAIK



Carlos Armendariz
Pilotaria

Carlos Armendariz pilotari nafarrak jokatu du aurtengo bigarren mailako buruz buruko txapelketaren finala, Santiren aurka, Bilboko Deportivo pilotalekuan. Atzelariak ez zuen inolako arazorik izan Eibarko Astelena frontoian Manuel Lejardi berriztarraren aurka jokatu zuen finalerdia irabazteko. Orkoiengo pilotariak sekulako pilotakadak eman zituen, Lejardi bere jokoa egin ezinean ibili zen bitartean. Orain arte ikusitakoaren arabera, Carlos Armendariz izango da bigarren mailako txapela eskuratzeko faborito nagusia. Behetik gora joan da buruz buruko txapelketa honetan, eta txapeldun usaina antzematen hasiak zaizkio batzuk. Gerokak erranen, baina bide onetik doa pilotari gaztea.



Jose Maria Rodriguez Otxoa
Hizkuntz Politikako burua

Euskara aukera ona' lemako aurrematrikulazio kanpaina aurkeztu berri du Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak. Azkeneko hiru urte hauetan egin duen bezala, aurten ere euskarazko eredutan matrikulazioa gehitzeko kanpaina da. «Gurasoei informazio zehatza eta argia ematea da kanpaina honen helburu nagusia», Jose Maria Rodriguez Otxoa Hizkuntz Politikarako arduradunak azaldu zuenez. Hala ere, euskarazko eredutan matrikulatzen diren haurren kopurua gero eta handiagoa da: haur hezkuntzan lautik bat D ereduan matrikulatzen da. Datu itxaropentsuak dira, kontuan hartuta urtero euskaraz ikasi nahi dutenek jasan behar dituzten oztopo eta arazoak.

AHAZTU GABE!

Euskal prentsa

Altsasuko Kima taldeak eta herriko udaletxeko Euskara Zerbitzuak zenbait ekitaldi prestatu dituzte asteburu honetarako. Euskara suspertzeko asmoz sortutako talde honek orain baino lehen antolatu ditu antzeko saioak, eta azken honetan, euskal prentsari eta aldizkari buruzkoak izanen dira. Hasteko, gaur egun Euskal Herrian argitaratzen diren euskal aldizkarien erakusketa izanen da ikusgai asteburu osoan, Gure Etxean. Gaur eta bihar arratsaldean (19.00etatik 21.00etara) eta igande eguerdiko 12.00etatik 14.00etara. Era berean, gaur arratsaldean, hainbat argitalpenen ordezkariekin hitzaldi bat izanen da, 19.00etatik aurrera. Bertan, EUSKALDUNON EGUNKARIA, 'Argia', 'Larrun', 'Napartheid' eta beste komunikabide euskaldun batzuen ordezkariak agertuko dira. Era berean, mintzaldian bertan, ezagutaraziko da Sakanan laster batean aterako den euskal aldizkariaren proiektua. Ekitaldi hauen helburua Altsasun euskal prentsa bultzatzea da, eta horretarako arduradunek informazioa zabalduko die edozein aldizkariaren harpidetza egin nahi dutenei.

JENERO XUMEKOAK

Jorge Oteiza banintz

Jorge Oteiza banintz, ni ere nindoake Martzelogradotik. Martzelogradoko karriketan ez dut gauza txarrik ikusten. Jenderik baino ez; Gehiegi pentsatzen dugu, eta gutxiegi sentitu.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Altsasu

Gazteentzako Argibidea zabalik

AMAIA AMILIBIA / ALTSASU

Gazteentzako Argibidegunearen inaugurazio ekitaldia ospatu zen joan den larunbatean, arratsaldeko seietan, Gure Etxean. Bertan Altsasuko gazteek zsnbait laburmetraia ikusi ahal izan zuten, hala nola, Nada que Ver taldeak egindako 'Balada a Benito' marrazki bizidunak, eta Beatriz De la Vega zinemagileak zuzenduriko 'Los Goiakoetxea' laburmetraia. Bideo emanaldiaren ondoren argibidegunea ezagutzera hurbildu ziren gazteek, eta gazta eta txorizoa dastatuz, informazio bulegoa eta honen arduraduna gertutik ezagutzeko parada izan zuten. Izan ere, Zapa arduradunak azaldu zuenez, gazteei beraiei zuzendutako ekitaldia izan zen. «Hasi-erian zerbait ofizialagoa egitea pentsatu genuen, Nafarroako Gazteen Kontseiluko zuzendariak gain Udaleko zinegotziak eta alkatearekin egitea, baina alkatea eta Udaleko zinegotziak deitu beharrean, gazteentzat egin dugu azkenean».

Bulegoa Gure Etxean dago eta asteazkenetan arratsaldeko seietatik zortzietara eta larunbatean goizeko hamaiketarik ordu

batera dago zabalik. Hemendik aurrera, beraz, Altsasuko gazteek ez ezik, herrian ikasten duten inguruko herrietako gazteek ere ikasketa, oporraldi, lehiaketa, sexualitate, drogamenpekotasun eta hainbat gairi buruzko informazioa jaso ahal izango dute bulego honetan. Baina informazioa eta dokumentazioa eskaintzeaz gain, gazteen ekimenak sustatzea du helburu zentro berriak: «Gazteen autonomia bermatu nahi dugu» azaldu zuen Zapak.

Argibidea Altsasuko Udaleko Gazteria Batzordearen ekimenez eratu da. Antxon Ramirez Gazteria zinegotziak inaugurazio ekitaldian bere garrantzia azpimarratu zuen. «Askotan zaila izaten da gazteari interesatzen zaizkion hainbat ikastaro edo ekitaldiren berri ematea. Orain dela gutxi Giza-kultura Promozioaren eskumenez antolatutako zenbait ikastaroren berri emateko kalez kale ibili behar izan genuen». Halaber, gazteak maiztasun handiz joateak duen garrantzia azpimarratu zuen Ramirezek, eta horretarako berriemakileak paratu zituzten Lanbide Heziketa eta Intitutuan, komunikazio estua ziurtatzeko.



Mota guztietako informazioa bilduko du bulegoak. AMAIA AMILIBIA

Iruñea

Tuterako katedraleko ataria aztergai UEUko azken egunean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Gaur amaituko dira Udako Euskal Unibertsitateko IV. Jardunaldiak Iruñean, Tuterako katedraleko 'Azken Judizioko' atariari buruz Angel Asiain Arte

Ederretan lizentziatuak emanen duen mintzaldiarekin. Aste osoan zehar bezala, arratsaldeko 19.30etan izanen da mintzaldia, Hizkuntz Eskolako Compañia Aretoan.

Tuterako katedraleko ataria oso gutxi ikertu da duela bospasei urte arte, oso garai berezian egina zelako. Batzuen ustetan XII. mendearen hondarrekoa bazen, beste batzuek XIII. hasierakoa zela zioten. Hori zela eta, erromanikoaren eta gotikoaren artean izanik, ahaztuxea izan da urteetan. Azken ikerketek, ordea, zehaztu egin dute bere balioa, eta data eman: XIII. mendearen hasierakoa.

Asiainek azpimarratu duenez, bere balioa infernuaren aldean dagoen irudi eta imajinen aberastasuna da. «Atari guztiak banatuak daude, eta infernuaren aldean, edo hobeto esanda, infernuaren zigorrak azaltzen duen aldean, ikonografia izugarri berria da, 46 eszena ikus baitaitezke». Ohizko atarietan sei-zazpi eszena baino ez dira azaltzen. Obra honen bigarren berezitasuna bekatuak azaltzeko modu guztiz berezia da. Tuterako atari honetan, lehendabiziko aldiz, ez dira bekatuak soilik azaltzen, gizarte klase batekin lotu egiten baitira, burgesiarekin, hain zuzen ere.



restiak. Iruindarrak, berriz, iruindarrak ziren, fundamente handikoak, finura gutxiokoak eta merkeak.

Egun, baina, pintxo donostiarrak donostiar izaten jarraitzen dute, eta Iruñekoak, aldiz, giputz kutsua hartzen hasiak dira. Urrizelki taberna, gibel koipetsuen erresuma, desagertu da, eta desagertze bidean dirudite Marrano, Gallego eta pintxo koipetsuak ardatz dituzten gainontzeko tabernekin. Jada badira Iruñean tabernak non loredun pintxoak ematen dizkizuten —San Lorenzo kaleko Piskolabis, esaterako— eta Urrizelki zenaren lonjan euskal Mc Donald's bat paratu dute, Pazampar izenekoak. Dena dela, Urrizelki, ez zaitugu ahaztuko: izan ere, urak dakarrena urak daroa, eta zuk emandakoa, Urrizelki, gurekin gelditzen da, gure gerrian soberan dauden kilo horietan, hain zuzen.

Lakuntza



Aralar Txirrindulari Taldea

Lakuntzako Aralar Txirrindulari Taldeak denboraldi honetarako bere bi taldeak aurkeztu berri ditu, aurreko urteetan bildutako emaitza onak berriro lortu nahian. Talde jubenilekoak dira argazkian ageri direnak. Goian, ezkerretik eskuinera: Angel Arrieta, Unai Razkin, entrenatzaileak, Ivan Verdugo eta Javier Fernandez. Erdian: Eduardo Ibañez, Iñaki Ondarra, Xabier Asiain, Jose A. Egizabal, Carlos Ijurko, Ion Igoa, eta Jose I. Lazkoz. Behean: Goizeder Beltza, Oskar Moro eta Iñaki Rubio.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Urrizelki zenaren oroimenez

Bizitzan tarteka-marteka gertatzen diren txorakeriak direla medio, hiritik urrun igaro behar izan nuen joan den asteburua, Lakabe herrian, Itoitzen barna galdurik. Kostata lortu nuen iraubizitza, 48 orduz oxigenoz beteriko aire osasuntsua arnastu eta gero. Tximuak jota, behin eta berriz auto bat bilatu nuen —eta ezin topatu— haren ihes-hoditik karbono monoxido apur bat jaso nahian.

Nire birikek mendiko haizea pairatu zuten, eta nire urdailak soia. Soia eratorrinak dira barazkijaleen menuen oinarri nagusia, eta Lakabeako barazkijaleak dira. Beraz, eta besteak beste, Whiskas itxura, tankera eta zaporea zuten soia pilotxoak jan behar izan nituen. Horretan ari nintzelarik, —horrelakoa da subkontzientea— Jarauta kaleko Urrizelkin ematen zituzten pintxo koipetsuak etorri zitzaizkidan burura; gibeltxoak, odolkiak eta gainontzekoak, beti ere, guziak koipean blai egindakoak.

Era ergel horretan iruindar pintxoaren munduan azken urteotan gertatu den garapenari erreparatu nion. Apurka-apurka donostiarrak bilakatzeko ari dira gure pintxoak. Duela zenbait urte, pintxo donostiarrak donostiarrak ziren, fundamente gutxiokoak, finura handikoak eta ga-


GOIZANE
JATETXE BEGETARIANO

Iruñerria kalea, 6-8 (Urgentzien aurrean),
Virgen del Camino Ospitalea Tf: 948-26 39 27 IRUÑEA

Te areto
integrala



XAKEAN



Nafarroako Gazte Txapelketako laugarren ihardunaldiko partida, 1994ko otsailaren 12an jokatu. Santiago Karasusan (1. rankingean)—Pedro Viñal (2.250 ELOkoa, 3. rankingean).

1.Zf3,d5; 2.c4,e6; 3.g3,c6; 4.Ag2,f5; 5.O-O,Zf6; 6.d3,Ae7; 7.Db3,O-O; 8.Ad2,Za6. Beltzek estuasunak dituzte piezak gartzeko. Ohartu 'c8-ko' alfila itxita dagoela. Jokaturako zaldia ere ez da lekurik onenera joan. 9.Ac3,Zc5; 10.Dc2,De8; 11.b4. Pizea beltzen mugikortasun faltaz baliatzen ari dira txuriak, alde horretan nagusitzeko. 11....cZ-d7; 12.bZ-d2,Dg6; 13.aG-b1,a6. Agian, hobe, 'b6'. 14.a4,Zg4; 15.b5,a-b5; 16.a-b5,Ad6; 17.c6.-c6; 18.d5,c-d5; 19.Ab4,Ab4; 20.-Gb4. Damaren aldean, txurien nagusitasuna nabarmena da.


20....Df6; 21.h3,gZ-e5; 22.-Ze5,De5; 23. Zf3,Dd6; 24.fG-b1,Aa6; 25.Zd4,f4; 26.Dc6. Oso jokaldi ona. Toki aproposa lortuko dute zaldia-erentzat. Bitartean, alfila beltza zer eginik gabe. 26... Dc6; 27.Zc6,g3; 28.g3.-aG-e8; 29.Ga1,Ac8; 30.Ga8,Ef7; 31.Gf4 xa,Zf6; 32.g4,Eg8; 33.-Ga7,Zd7; 34.Gf8 xa,Ef8; 35.-Ef2,Ef7. Pieza beltzak ederki lotuta zeuden. Hau jokaturakoan, txuriek gogor erabaki zuten. Ikus Koadroa. 36.e4,e4; 37.Ae4,h6; 38.Ze5 xa, Ee7; 39.Ac6,Gd8; 40.Ad7,Gd7; 41.Zd7,Ad7; 42.E-e3,e5; 43.Ee4,Ed6; 44.Ga6 xa; 45.Gc6 xa. Beltzek amore eman zuten. Txuriek etekin ona atera zioten taulako alde bat menperatzeari.

Azkeneko orrialdea irakurtzen

Nere gelako armairuko atea ireki nituen eta bertan metaturik zegoen arropa mordoa ateratzen hasi nintzen. Jantzi, begiratu, erantsi... mugimendu berdinak zenbait aldiz eginaz, eta ondo banuen, ohe gainean zetzan maleta handi batean sartzen nuen. Maleta egiten bukatu nuenerako izerdi patsetan nengoen eta doi-doi lortu nuen, traste handi hura besoetan hartu eta gelako sarreraraino eramatea.

Gelako atetik buru zati bat atera nuen eta nahiko barealdi susmagarri bat nabari zen giroan. Orain artean ez bezala, egun hartan etxeak bestelakoa zirudien eta guzti. Zihurrerik, nere ama egongelako besaulkian egongo zen lotan eta aita euren gelan. Egunak, edo hilabeteak zehazki esateko, ziren elkarrekin lorik egiten ez zutela, etengabeko txandaketa batean zihardutelarik. Komunera zuzendu nituen nere pausak eta dutxako ura berotzen zen bitartean arropa erantsi nuen. Azken hilabeteako lisakar eta gora-behera guziekin leher eginda nengoen eta dutxari zerion ur beroa gorputzean zehar hedatzen zitzaidan heinean, gehiago ezin nuela konturatu nintzen. Lasai-lasai azala toialaz sikatzen nembilerarik, oiho hotsak entzun nituen. Ez!!

Ez mesedez! Ez nengoen zerranda luze batean pilatzen ziren borroka egunei, hau ere gehitzeko prest. Aurpegi txar eta pauso sendo eta zihurrez, komunetik irten nintzen. Ikusi ninduten orduko bakoitza alde batera joan zen, ezer esan gabe, beste aldera begiratu gabe. Egia esan, ez zen, nik etxean garrantzi handia dudalako gertatu, ez. Agian bere bizitza osoan edo denbora luze batean behintzat ikusiko ez nindutelako baizik. Jantzi ondoren ispilura hurbildu nintzen, orrazteko asmoz eta ia ez nuen nere burua ezagutu. Azala zuri-zuria nuen, gaixorik



Elena Andueza

(BARAÑAIN)

zaharrean zetorren. Arrapalada batean joan nintzen nere gelara, maleta hartu eta oraingoan ez horren abaiada handian, baina zangoak arinki mugituz, ataritik jaitziz, kalera atera nintzen. Izebaren besoetara bota nintzen. Gero, maleta atzean uzten nuen bitartean, izebak gurasoak agurtzen zituen, ondoren nik ere berdin egin nuelarik, badaezpada, biei gauza berdinak esanez. Kotxera igo, atea itxi eta izebak giltzari eraginez, martxan jarri zuen. Lo egiteko gogo handiak nituen, baina baita lo hura oztopatzen zuten hainbat arazo ere. Hasiera batean izeba hizketan hasi zitzaidan, baina esaten zuenari kasurik egiten ez nionez hitz egiteari utzi zion.

Amonaren etxerantz nindoan, gaztea ze-



banengo bezala eta begiaren azpian marra lodi beltzak zabaltzen zitzaizkidan, begiak beraien zuloetan hondaratu. Gurasoen arteko borroka batean, airera iraultako pitsarra batek eginiko zauriak, ezpainak hazten zizkidan eta masailan urradura bat nabarmendu zidan. Aurpegi desitxuratu hari, begirada zuzenak bidaltzen nizekion eta 'Hertzainak-en' 'Ispiluaren aurrean' abestia zertorkidan gogora.

Leioha zabaldu nuen eta haize epelak xamurki ferekatzen zidan. Nere pentsamenduetan murgildurik nengoelarik, kotxe baten burrunba hotsa aditu nuen. Kanpora begiratu eta, noski, izeba zen; bere kotxe zuri

neko lanak beharturik, Paris inguruko herri batean bizi zena. Ez nuen inoiz ikusi eta lotsa, beldurra edo zihur ez dakit zer sentitzen nuen berarekin bakarrik zortzi hilabete edo gehiago igaro behar nituela esan zidatenetik. Nere gurasoen arteko harremanak ezegonkortasuneko momentu batetik igarotzen ari ziren eta dibortzia prestatzen zuten bitartean, errezagoa zelakoan, amonaren etxera bidaltzen ninduten. Gizon eta emakume bat, aulki banatan eserita zeuden, eguneroko bat zenaren azkeneko orrialdea irakurtzen; noizbehinka malko triste eta hotz bat isurtzen zitzaian masailetatik behera.

Pixagura, dekorazio olerkiak Markalain et gaizkileak (II)

Ez da falta kanta hauetan hitz elkartuetan hain arruntak diren oihartzunak xinguli-manguli, bigarren hitzaren aurrean /m/ sortuz eta /i/ bokalea /a/ bihurtuaz. Beraz, euskal tradizio txeroketik ezin hobeki entenditzen diren kantak ditugu. Lauretan bi elementu kontrajartzen dira. Alde batetik ona/etxeko, eta bestetik gaixtoa/kanpoko/Markalaingo. Eugiko eta Larraintzarreko bertsoietan Markalain hitza agertzen ez denez, garbiago ikus dezakegu bere esanahia. Aitama guziok badakigu ze nekosoan den haurrak kaka-pixa egiten ohitzea, eta ze nolako ondorio txarrik di-

tuen segituan horretara ez usatzeak. Kanta txantai bat da, ona bazara, kaka egiten baduzu, etxe-kotzat hartzen zaittugu, pixa egiten ez baduzu, inork nahi ez duen Markalaingo txorrota behitira botatzen ez baduzu, arrotza zara, kanpotarra, Markalaingoa.

Eta jakina, haurrak pixa egin nahiago du, Markalaindartzat besteek hartzea baino. Iruñerriko irrati-saio batean kanta hau erabiltzen dute atari. Horrez geroztik ugaldak uherrak omen doaz. Kantak inoiz ez bezala dirau. Larunbateko goizean Berako eta Eugiko amatxik aritzen dira horrekin kantaka. Espero dezagun

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak
zure atean joka

Markalainek
duen gauza
ospetsu
bakarra
bere mendi
portua da.

bertsio gehiago ateratzea. Eta hau da afera. Zer zeukan Markalain-ek denbora batean, haurrak hainbeste izutzen zituena, pixa egiteraino gehienetan? Hara joan ginen eta hasieran esku hutsik bueltatu. Ez zegoen ez hiltzaile sonaturik, ez sarraskiren bat, aintzinakoa, ugarazioak edo igelek harriakaz berba egiten zutenean. Markalainek duen gauza ospetsu bakarra bere mendi portua da. Halare arazoaren giltza hortik ibili behar zuen.

Nafarroako toponimia txikian Markalain izena arrunta da, hala Iruñerrian nola Mendialdean. Julio Caro Barojak Markalain ibili zuen bere teoria taxutzeko. 'Marcellus-en' fundusa. Martzelo hori hiltzaile bat izan zitekeen. Mañerun argi eta garbi, aurrekoaren inolako berririk ga-


be, esan ziguten Markalain dermio oso txarra zela, landatzeko bat ere aproposa. Markalainek izan zuen zeredozer jendea kaka-larri ezartzeko gauza zena. Hona hemen gure azalpena. Markalaingo mendirik altuenak Justizialapeta du izena. Jendearen us-tez, mendi horren aldapak 'son de justicia', eta hortik datorke izena. Etimologia bestelakoa da. 'Justizialapeta' dokumentatzen da. Urkamendi bat zen. Jendea urkatze leku bat. Eta Markalaingo pasabidea ezinbestekoa denez Ultzama eta Basaburuko bidean, famatuko zen, antza, Markalain garai batean gaizkile topaguna zen. Berdin du ea haien sorreria zen ala haien hilobia. Ataburuko portua txirindulaz igoztean, gogora zaitezte hantxe hiltzirenez.

Oroitzapenik ederrena

Pako Aristi idazle gipuzkoarrak 'Auto-stopeko ipuinak' izeneko liburua argitaratu berri du Erein argitaletxearen eskutik. Liburuaren aurkezpena egingo da bihar, larunbata, Iruñean, eta hiri honetan kokatu eta girotutako ipuin bat dakar, hain zuzen, liburuak. Bere interesa dela eta, Nafarkariak oso-osorik eskaintzen dizu gaur.

I

garoaren harian ez da tris-turarik kolunpiatzen, ezta sikiera maitasunari buruzko ilusio itsurik ere. Aspermena, agian bai. Edo egun hauetako euri hotsaren marmar berdotsak sortu didan bakardaderako joera eta izkribamerako tentapena. Nik uste ikasi dudala zahartzen denbora berak bizitzako gauzak erasan eta zatartzen dituen abiaduraren neurria; ez denbora baino lehenago, biharkoa azken eguna bailitzan gorputza bezala sentimenduak erretzen dituztenen gisan. Baina ezta



Pako Aristi

denbora eta gero gazte jarraitu nahian dabiltzen kaskailu penagarriak bezala ere, bizindar krizkilatuak neurritz kanpoko alaitasun ero eta tristeaz estaltzen dituztenak. Hel-dutasuna baldin bada neurriko kalzeta jostea handikeria bakoitzari, gaizki dabil gure edadean iragan-uhinen zikloa, biratzen direnen eta aparretan desegin zirenen artean sailkatzen ikasi ez duena.

Horregatik gorroto ditut hirugarren adineko irtenaldiak, baina baita etxeko begiralekuan euliak hoztarekin bezala eroritzen zaizkidan arratsalde geldoak ere, non emazteak isilka errepikatzen dituen betiko kontuak, gure beherakada eta monotoniari sordina jarri behar bailitzaion.

Ez beti, baina askotan hirurak puntuan ateratzen naiz etxetik eta Estafeta kalean gora babes eta ikusmira bilatzen dut Zaharren Egoitzako taberna epelean. Horren eta kanposantoaren artean banatzen gara lehen gazte edo zerbait izan ginenak. Kafea hartzen dut, kartajokuan errebantxa zaharrak berritzen ditugu, eta batzutan, gaur bihotzondotik atera zaidan legez, oroitzen saiatzen naiz, oroitzen, irabazi edo galdu genuen guzti hartatik kontaktzea merezi duen itxurantzeko zerbait erreskatatu nahian.

Irakur maitea izan naiz beti. Munduan egon behararen lehen ikarak sentitzen hasi nintzenetik, liburuak bilakatu ziren nere beldur aitortezinaren lasaigairi zuhurrenak. Liburu bakoitzean dago neretzat galdu genuen eternitatearen mustio tantona bat; zenbat eta gehiago irakurri, zukuak ikara inarosten du lasaitasunari paso emanaz.


Jeneralean nere bizitza grisa izan da, eta ez dut jakin sortzen eternitate sentipenik inorentzat. Horregatik 1959garren urteko enkontru haren oroitzapena da bizitzako hu-

tsaldirik grabeenetan ere bete nauen baltsamo bakarra.

Gaztelu Enparantzan dagoen Gómez liburudendara joaten nintzen garai hartan. Iruñean ez zen besterik. Aramburunera ez zen inor joaten, eta hori existituko ez balitz bezala da, zeren irakurlerik gabeko liburua ez da ezer, liburua norbaitek azala zabaltzen dionean pizten da, urduri, arrautz eskola txikitzen darten txitoa bezala.

Bi solairu zeuzkan liburudendak. Goian takigrafia erakusten zuten. Behean liburuak ziren irakaste bakar eta mutuak. Ezker-eskuineko apaletan eta erdiko mahaian itxoi-ten zuten, bailera saltatzeko gonbite zain dauden nerabe mimosoak bezala. Mostradorea irteeran zeukan, albo batera. Han aurkeztu eta ordaintzen nituen nere bihotzeko sekretuen elikagai ageriak.

1959ko uztailaren hasierako egun bat zen. San Ferminak noiz lehertuko zebilen jendea, asko itxarondutako sumendi bati begira be-



ageri zuten, eternitatearen kolorearekin batera infinitoaren desanparoa. Hitz handiak dira horiek, baina ez nuen besterik ikusi. Egunkarietan irakurria gogoratu nuen, nola odol presioa eta kolesterol mailak altuera arriskugarria zeuzkan, aorta neurritz gora puztua, serio ohartarazi zutelarik grasarik ez jateko, alkoholik ez edateko eta larrurik ez jotzeko. Bina gogoan nituen bost urte lehenago Nobel saria eman ziotenean amerikar enbaxadoreak bere izenean irakurri zituen hitz ederrak ere, Hemingwayk joaterik izan ez, eta propio okasiorako idatziak, hau esanez: *Idazleak bakarrik egiten du bere lana, eta behar bezainbat ona bada, egunero egingo dio aurre eternitateari edo bere gabeziari, egunero... idazlea ahal duena baino urrunago bultzatuta dago beti, inork lagundu ez diezaikeen punturaino.*

Nik bizitza osoa egin dut eternitatearen gabeziak lotaratu, Hemingwayk begiratu ninduen egun hura salbu. Eta esango nuke, zer-teziak lagundu ez diezadakeen punturaino urrunduz, Hemingwayren begiradan eternitatearen deskontsueloa ikusi nuela, itaunduz bezala ea zertarako ballo zuen dena delako eternitateak larrurik ezin bazuen gehiago gozatu, horretara laburbilduz literaturako gailurrik gorena lortzearren bizitzak kobratu zion ordaina.

Kamararen mugimendu bat sentitu nuen Hemingway eta nere arteko intimitatea hausten. Enkuadretik atera eta atzera biratu nintzen, eta Hemingwayk hiru mallak igotzen zituen bitartean haren sorbalda konkortu eta indargean H bat irudikatu nuen, bi urte geroago bere burua entregatuko zion heriotzaren lehen H larria.

Hortik aurrera zinera joaten hasi nintzen astero, orduan Iruñean ziren bost zineak, Avenida, Olimpia, Novedades, Alcazar eta Príncipe de Viana txandaka eta aukerapen berezirik gabe bisitatuz. Gabonetan etsi nuen arte astero ibili nintzen zine batetik bestera, emaztearen harridurari arrazoi bat-bateko eta pattalez erantzunez, nere sekretuaren benetako mamia babesteko. Telebistatik ez zen existitzen garai hartan, eta Nodo aspergarietan aurkitzea espero nuen Hemingway eta nere arteko harreman isil eta benetakoa jaso zuen pelikula, baina alferrik ibili nintzen bila.

Orain iritsi naiz ulertzera Hemingway eta nere artekoa maitasuna egitearen antzekoa izan zela: egileen memorian soilik irauten duen ekintza eder bat besterik ez.

Pablo Cifuentes
Jubilatua

Oharra: Ipuin hau Estafeta kaleko Zaharren Egoitzak Oroitzapenik Ederrena lemapean jubilatuentzat antolatutako ipuin sariketarik kanporatua izan zen, epaimahai-koek zalantza sendoak agertu zituztelako, arauetako batek eskatzen zuenez, kontatzen den oroitzapenaren benekotasunaz, frogatua dagoen arren idazle amerikarrak Iruñea bisitatu zuela 1959garren urtean, hil baino bi urte lehenago.

«Iruñeak alde egiten digu»

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

Atzo aurkeztu zen pelikulak «inoiz baino lan handiagoa» eman diola dio Ruizek, negatiboz betetako bobinez inguratuta dagoen bere bulegoan. Horrek ez dio afizioa kenduko, finean, haienezako egiten baititu pelikulak. Haienezako eta «etorkizunerako».

EGUNKARIA.— Zure hirugarren pelikula da hau. Noiz hasi zinen mundu honetan?

EGUNKARIA.— Orduan osatu zenuten taldean —Cine Pamploña— afizionatuak zineten denak.

RUIZ.— Bai, aspaldian afizioa dugun lagunak gara. Badago pelikula zoragarriak egin duen jende asko, eta gehienak ahaztuta daude, beraientzako egiten dituztelako, ez dituztelako erakusten. Baina bitxiak dira. Duela gutxi ikusi nuen gure taldeko teknikariaren pelikula bat, eta zoragarria zen. Uxueko

Horregatik, Navarria, garrantzitsuena, hartu dugu hasieran, gero San Cernin izango da eta azkenean San Nicola-sekoa. Bost pelikula hauek osatuko dute hiria, gure ikuspegitik.

EGUNKARIA.— Zer erakutsi nahi izan duzue Navarriari buruzko pelikula honekin?

RUIZ.— Navarriako burgoa Iruñearen jaiotza da. Izan ere, hiririk ez zegoen duela bi mila urte arte, eta hor bazen leinu

tzen dizkio Iruñea zaharraren gora-beherak, eta narratzaileak ezagutzen duen hiria azaltzen dio. Bataren eta bestearen artean iragana eta orainaldia kontaktzen dute.

EGUNKARIA.— Eta horrekin batera pasarte zaharrak sartzen dituzue.

RUIZ.— Bai, hiriak, zerbaitetaz hitz egiten duenean, «inoiz inork ikusi ez dituen» gauzak ikusi behar dituela esaten diolako narratzaileari. Eta ezezagunak dira grabaziook. Adibidez, 1953ko Sanferminetako irudiak azaltzen dira, neronek positibatuta, negatiboan zeudelako. Azaltzen da 1934ko Euskal Jaia, 1939ko Sanferminak, 1947ko korrida eta entzierroa... Orduan zezen batek bi mutiko hil zituen entzierroan, eta toreatzaileak Julian Marin eta Manolete ziren. Zezenak 'Semillero' zuen izena eta jo eta bertan hil zuen Marinek, Horrelako grabazioak aspaldian egindakoak dira denak eta horietako asko ditut nik etxean. Horrek guztiak txokoaren eta nostalgiaren zentzua dakar, eta ikusten da gaur egungoarekin desberdintasuna. Eta hain da ezberdina! Horrek bultzatzen gaitu Iruñea maitatzera, alde egin ez diezagun. Izan ere, hor dago Iruñearen arima.

EGUNKARIA.— Alde egiten ari al da?

RUIZ.— Ez badugu zaintzen, bai, nik uste. Alde Zaharra maitagarria da guretako, lehen bezala baitago. Hori kontserbatu egin beharra dago, eta horretarako dago egina pelikula. Ez da ezer arranditsu, maitasun handiz egindako zerbait baino ez.

EGUNKARIA.— Beste bi pelikulak erabaki duzue dagoeneko nola egin?

RUIZ.— Hau bukatu berria denez, besteak osatzen eta maitzen ari dira, baina, hemen, ganbaran. Kosta egiten da, gidoi dokumentalak zailak direlako. Neretako errazagoa da jendearekin pelikula bat egitea. Dokumentalarekin ahalegin handia egin behar duzu sobera imajina ez sartzeko, asperrak ez egiteko...

Antonio Ruiz

ZINEMAGILEA



SOSLAIA

Umila eta apasionatua

Atzo aurkeztu zen 'Iruñeko txokoak eta nostalgiak' sailaren hirugarren dokumentala, Antonio Ruizek egindakoa. Cine Pamploña taldeko partaideak adierazi duenez, Iruñearen historia eta gaur egungo 'magia' biltzen saiatzen da afizionatuek osatzen duten talde hau, baina arrandiarik gabe, «umiltasunez eta pasioz». Hogeita hamar urte inguru pelikulak egiten aritu ondoren, oraindik gustu handiz egiten duela dio, baina ez zaio inoiz buruan sartu ohizko pelikula bat egitea, «bakoitzak bere tokian egoten jakin behar duelako. Halaber, jendeak horrelako emaitzak estimatu egiten dituela sinetsirik dago. «Akaso ohizko produkzio handien ondoan sortzen duten kontrastearengatik».



Navarriako burgoaren historia kontaktzen du Ruizek pelikulak.

JOXE LACALLE

ANTONIO RUIZ.— 1969tik hona ari naiz zinema egiten. Lekuan da urtea! Baina hura afizionatuen zinema zen, orduan zeuden kamera zahar haiekin, super 8an. Horrekin daukat Iruñeko pelikula asko, hala nola Iruñeko estatuak, Iruñeko inguruneak, Udaberria Iruñean, Udazkena Iruñean, denak hiriarren inguruan. Baina une batean, hasieran afizioa besterik ez zenak seriotasuna hartu zuen, eta guk ere hortik jo genuen, profesionalizatu egin ginen. Orduan, duela zazpi urte, lagun batzuen artean erosi genuen tresneria ona, kamera, muntaiarako gela eta abar.

cruceros-ei buruzkoa zen, gozada bat. Denon artean osatzen ari gara, horrela, artxibo bat. Duela bost urte hasi ginen 'Txokoak eta nostalgiak' saila, Iruñeari buruzko pelikula polita egin nahi genuelako. Lehendabizikoa izan zen hiriar buruzko aitzin-solasaren antzeko zerbait, poema bat: kaleak, historia txikia, hasierak... Bigarrenean hiri modernoa erakarri nahi izan genuen, eta horregatik iturriak hartu genituen ardatz gisa. Hirugarrena hau da, eta berarekin, eta ondoren etorriko diren beste biek, hiria osatu zuten hiru burgoak bildu nahi izan ditugu.

bat, muinoen artean sartuta. Orduko historiariek aipatzen dute leinu basatiak ikusi zizutela mendietan, arrastaka, eta nik eszena hori sartu egin izan dut pelikulan. Ondoren, erromatarak, bisigodoak, arabiarak eta historia guztia azaltzen da pelikulan, lehengo Iruñearen —katedrala, Compañía, Dormitaleria—, inguruan.

EGUNKARIA.— Eta horretarako, hiria bera adierazten duen pertsonaia sartu duzue?

RUIZ.— Hala da. Maiken Beitia hiria da, eta narratzailearekin hitz egiten du. Narratzailea ikuslea baita, eta berak konta-

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

